

**ZINEUSKADI 2026**

**"ZINEMA EUSKARAZ" PROGRAMA**

**Interesen adierazpenari buruzko iragarkia**

Donostiako ZINEUSKADI Elkarte irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean xedatutakoari heltzen dio, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Elkartearen helburuen artean, EAEko zine areto komertzialetan eta zirkuitu alternatiboetan euskarazko filmen eskaintza sustatzea dago. Horretarako, estatutuek enpresei, erakundeei eta pertsoneri beren jarduera profesionalean laguntzeko gaitasuna aitortzen diote.

Horretarako, ZINEUSKADIk duen tresnetako bat **Zinema Euskaraz** programa da. Programa horrek euskarara bikoizteko eta/edo azpтитuluak jartzeko gastuak, kopiak eta 3.000 euro (BEZ barne) gehienez ordaintzen ditu, bertsiotutakoak eta/edo azpтитulatuak sustatzeko gastuetarako (promozio-gastuak ez daude non-theatrical estreinaldietan sartuta). Lankidetzaren bidez antolatzen da.

Halaber, ZINEUSKADIk, EITBrekin eta beste euskal komunikabide batzuekin sinatutako hitzarmenari esker, euskarazko bertsiotutakoaren merkaturatzea indartzeko konpromisoa hartu du, sustapen- eta publizitate-kanpaina baten bidez.

Horregatik, ZINEUSKADI elkarteak, gardentasunaren, objektibotasunaren eta interes orokorraren zerbitzura egotearen printzipioak aplikatuz, ikus-entzunezko lanak banatzen dituzten erakundeak gonbidatzen ditu adierazpen interesak aurkeztera, euskarara bikoizten edo azpтитulatuak diren zinema-tituluak identifikatzeko, etorkizuneko lankidetzaren akordio edo hitzarmen burutzeko.

## **LEHENENGOA.- Xedea**

1. Iragarki honen xedea da 2026an estreinatuko diren film luzeen (fikzioa, dokumentala eta/edo animazioa) ustiapen-eskubideak dituzten banatzaileei buruzko aurretiazko informazioa biltzea, baldin eta euskarara bikoizteko edo azpтитuluak jartzeko modukoak badira eta ZINEUSKADIREkin elkarlanean aritzeko interesa badute, areto komertzialetan eta zirkuitu alternatiboetan euskararen presentzia sustatzeko ekimenetan.

2. Honako proiektu hauek ez dira kontuan hartuko:

- EITBk ekoizle gisa parte hartzen duen eta euskarazko bertsioaren antena-eskubideak eskuratu dituen proiektuak.

EITBk euskarazko bertsioaren antena-eskubideak soilik erosi baditu, ZINEUSKADIk formatu digitaleko kopiak aretoetan estreinatzeko sortzen dituen gastuak baino ez lituzke ordainduko.

- Eusko Jaurlaritzaren laguntza-eskabideetan (ekoizpena, finantzaketa, gidoi sorkuntza, etab.) euskara jatorrizko bertsio gisa markatu duten proiektuak.

- «X» gisa kalifikatutako filmak.

3. Iragarki hau ez da dirulaguntzen deialdi bat, ezta kontratazio-prozedura bat ere, eta ez dio betebeharririk sortzen ZINEUSKADIrri. Esploratzeko helburua du, eta ez da loteslea.

### **BIGARRENA. – Erakunde hartzaileak**

Ikus-entzunezko sektorearekin zerikusia duten pertsona juridiko pribatuek edo pertsona fisikoek aurkeztu ahal izango dituzte interes-adierazpenak, baldin eta areto komertzialetan edo zirkuitu alternatiboetan filmak banatzen aritzen badira profesionalki (enpresa banatzaileak, agenteak, ordezkariak edo banaketa-eskubideen titularrak Espainiako lurraldean), edo bikoizketarako eta/edo azpтитuluetarako ustiapen-eskubideak zilegiak egiaztatzen duen bestelako erakundeak.

### **HIRUGARRENA.- Eman beharreko informazioa eta forma**

Filmen proposamenen eskaerek ZINEUSKADiren I., II. eta III. eranskinak aurkeztu beharko dituzte, eranskin horietan eskatutako dokumentazioarekin batera.

### **ZINEUSKADI**

TABAKALERA, 3. Solairua

Emakume zigarrogileen Plaza 1

20012 Donostia-San Sebastián edo posta elektronikoz: [info@zineuskadi.eu](mailto:info@zineuskadi.eu)

Eskabideak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dira.

## **LAUGARRENA.- Aurkezteko epeak**

Eskabideak 2025eko urriaren 15etik 2026ko abenduaren 31ra aurkeztu beharko dira.

Batzorde batek proposamen bat egingo du eskabideak jaso ahala, ZINEUSKADIk ezarritako irizpideak eta titulu bakoitzaren estreinaldi-datak kontuan hartuta.

## **BOSGARRENA.- Interes-adierazpenen azterketa**

1. Batzorde batek interes-adierazpenak ebaluatuko ditu, eta honako irizpide hauei egokitzen zaizkienak proposatuko ditu:
  - a) Familiei/haurrei zuzendutako ekimenak. Proiektuen dibertsiorako eta entretenimendurako gaitasunaz gain, proiektu horiek haurrak eta nerabeak balioetan hezteko duten gaitasuna ere kontuan hartuko da.
  - b) Produktuak izan dezakeen merkataritza-eragina, kontuan hartuta, besteak beste, lan horrek jatorrizko herrialdean eta jaialdietan lortu duen arrakasta.
  - c) Estreinaldiaren ondoren filmek zirkuitu theatrical edo ez theatrical desberdinetan egingo duten ibilbidea.
2. ZINEUSKADI izango da, Batzordearen proposamenaren aurrean, hitzartu beharreko erakundeekin harremanetan jarriko dena, gehienez ere 5 eguneko epean.

## **SEIGARRENA. Batzordearen osaera**

Honako hauek osatuko dute Batzordea:

- ZINEUSKADI Elkarteko presidentea.
- ZINEMA EUSKARAZ programaren erabaki-batzordeko bi ordezkari; horietako bat EZAE (Euskal Zinema Aretoen Elkarte) elkarteko kidea; eta bestea, gainerako elkarten artean, akta ofizialaren bidez izendatua eta horretarako bereziki egindako deialdiaren bidez, hautatuko ordezkaria.
- ZINEMA EUSKARAZ programaren koordinatzailea.

## **ZAZPIGARRENA.- Izaera ez-loteslea**

Interes-adierazpen bat aurkezteak ez die inolako eskubiderik ematen erakunde parte-hartzaileei.

ZINEUSKADIk beretzat gordetzen du soilik intereseko proposamena duten erakundeekin harremanetan jartzeko eta, hala badagokio, hitzarmen bat edo legez bidezkoa den beste lankidetzeta-formula bat formalizatzeko negoziazioak hasteko ahalmena.

**ZORTZIGARRENA.- Datuen babesa**

Igorritako datuak datu pertsonalak babesteko araudian xedatutakoaren arabera tratatuko dira, eta iragarki honen helbururako baino ez dira erabiliko.

Sinaduraren lekuan eta egunean,

ZINEUSKADI Elkarteko presidentea  
Aitziber Atorrasagasti Calcedo